

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

USURBILGO UDALA*Iragarkia*

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2019ko maiatzaren 14ean egin-dako bilkuran, igogailuak instalatzeko 2019ko dirulaguntza kopuruak behin betikoz onartu zituen.

Erabaki hau finkoa da eta amaiera eman dio administrazio-bideari.

ERREKURTSOAK

— Erabaki honen aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, erabakia berraztertze errekurtsoa aurkez dezake urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen arabera Tokiko Gobernu Batzarraren aurrean. Eskatzaileak hilabeteko epea dauka horretarako: erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrerako hilabete osoa.

— Bestela, erabaki hau berraztertze eskatu ordez, edo berraztertze errekurtsorearen erantzunaren aurka joko balu, zuzen zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake. Interesatuak bi hilabeteko epea dauka horretarako, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Errekurtsoa aurkeztekotan Gipuzkoako Kontentzioso-Administrazioetarako Epaitegira jo behar da. Bestaldek, birjarpen errekurtsoa erantzun gabe utziko balu Administrazioak, interesdunak edozein momentutan aurkeztu ahal izango du administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, berariazko araudiaren arabera presuntziozko ekintza gertatu den biharamunetik aurrera.

Usurbil, 2019ko maiatzaren 14a.—Xabier Arregi Iparragirre, alkatea. (3233)

TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN ERABAKIA

IKUSIRIK

2019ko otsailaren 12an, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, igogailuak instalatzeko 2019. urteko dirulaguntza oinarriak argitaratu ziren, eskaerak aurkezteko hogeitau eguneko epea emanez, hau 2019ko martxoaren 12an bukatu zelarik.

Epea amaitu ondoren, hiru dirulaguntza eskaera aurkeztu dira.

2019ko apirilaren 11ko bilkuran Dirulaguntzen Batzorde Orokorrak, Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako teknikariaren txostena kontutan harturik, ebazpen-proposamena egin zuen eta interesatuei 10 eguneko epea eman zitzaion alegazioak aurkezteko.

Epe horretan ez da alegaziorik aurkeztu.

Hori horrela, 2019ko maiatzaren 15ean ospatutako Ohiko Osasun eta Gizarte Zerbitzuak batzorde informatiboan, igogailuak instalatzeko 2019. urteko dirulaguntzen banaketa proposamenaren berri eman zen.

AYUNTAMIENTO DE USURBIL*Anuncio*

La Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Usurbil en sesión celebrada el 14 de mayo de 2019, aprobó con carácter definitivo la adjuntación de las ayudas económicas para la instalación de ascensor.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa.

RECURSOS

— Podrá interponer contra éste acuerdo el Recurso de Reposición correspondiente ante la Junta de Gobierno Local. Todo ello conforme a lo dispuesto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. La persona solicitante podrá interponer dicho recurso en el plazo de un mes: contados a partir del día siguiente de la citada notificación.

— No obstante, alternativamente al recurso de reposición o en caso de oponerse al acuerdo de resolución del recurso de reposición, las personas interesadas podrán presentar directamente recurso contencioso-administrativo. El plazo para el mismo será de dos meses, a contar desde el día siguiente al de la notificación del acuerdo. En ese caso deberá recurrirse en el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Gipuzkoa. Por otra parte, si la administración no resolviera el recurso de reposición, las personas interesadas podrán interponer el mencionado recurso contencioso-administrativo, a partir del día siguiente a aquel en que, de acuerdo con su normativa específica, se produzca el acto presunto.

Usurbil, a 14 de mayo de 2019.—El alcalde, Xabier Arregi Iparragirre. (3233)

ACUERDO DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL

ANTECEDENTES

El 12 de febrero de 2019 se publicaron en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa las bases que regulan las subvenciones del 2019 para solicitar ayudas económicas para la instalación de ascensor, concediéndose un plazo de veinte días hábiles para presentar las solicitudes. Es decir, las solicitudes debían ser presentadas antes del 12 de marzo de 2019.

Dentro de dicho plazo, se han presentado tres solicitudes de subvención.

El 11 de abril la Comisión General de Subvenciones, teniendo en cuenta el informe técnico de Servicios Sociales, emitió una propuesta de resolución, concediéndose a los interesados un plazo de 10 días para presentar las alegaciones oportunas.

En ese plazo no ha habido alegaciones.

Con fecha 15 de mayo de 2019, se procedió a informar a la Comisión de Salud y Bienestar Social de la propuesta de resolución de las subvenciones para 2019 a particulares para instalación de ascensor en la vivienda.

ETA KONTUTAN HARTURIK

– Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzak arautzen dituenak.

– Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 2008-07-01).

– Usurbilgo Udaleko 2017-2019ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA 2017-07-18).

– Igogailuak instalatzeko 2019. urteko dirulaguntzen oinarriak (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 2019-02-12).

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehenengoa: Igogailuak instalatzeko 2019. urteko dirulaguntzen kopuru hauek onartzea:

M.G.C.: 1.000,00 €.

E.R.A.: 700,00 €.

M.A.R.D.: 1.000,00 €.

Bigarrena: Dirulaguntza ordaintzerakoan udalarekin zorra dagoen kasuetan, ez da dirulaguntzarik emango.

Hirugarrena: Dirulaguntzak aurrekontu-partida honen kargura joango dira: 1.8000.780.231.03.01.2019 (A 271-2019).

Laugarrena: Ebazpena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da.

Bosgarrena: Udaleko iragarki taulan eta www.usurbil.eus web orrian ere behin betiko ebazpenaren berri emango da.

Seigarrena: Kontu-hartzaitzari akordioaren berri ematea, ordainketa egiteko orria erantsiz.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

– Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

– Ordenanza municipal reguladora de las subvenciones (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa 01/07/2008).

– Plan Estratégico de Subvenciones 2017-2019 (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa 18/07/2017).

– Bases de subvención para 2019 a particulares para instalación de ascensor en la vivienda (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa 12/02/2019).

La Junta de Gobierno Local ha procedido a dictar la siguiente

RESOLUCIÓN

Primero: Aprobar las siguientes subvenciones del 2019 para instalación de ascensor:

M.G.C.: 1.000,00 €.

E.R.A.: 700,00 €.

M.A.R.D.: 1.000,00 €.

Segundo: En aquellos casos en los que haya deudas para con el Ayuntamiento, no se concederá subvención alguna.

Tercero: Las subvenciones del 2019 para solicitar ayudas económicas para instalación de ascensor se concederán con cargo a la siguiente partida presupuestaria: 1.8000.780.231.03.01.2019 (A 271-2019).

Cuarto: La resolución será publicada en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Quinto: También se dará cuenta de la resolución definitiva en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y en la página web www.usurbil.eus.

Sexto: Notificar a al departamento de Intervención esta resolución, añadiendo la hoja correspondiente a los pagos.